



Usurbilgo Udala

2016KO AZAROAREN 29AN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka
Xuban Zubiria Elexpe
Jone Urdampilleta Urdampilleta
Iñaki Ugarte Agirre
Miren Josune Estella Arranz
Irene Garcia Palacios
Jose Mari Iribar Zapirain
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Andoni Atxega San Sebastian
Carlos Perez Fraisoli
Fermin Orue-Echevarria Iturri

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Kontu-hartzailea: Karmele Lizaso Ubera

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2016ko azaroaren 29an, arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

1.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2016KO URRIAREN 17TIK AZAROAREN 18RA (2016/0969-2016/1127).

Alkatetzak 2016ko urriaren 17tik azaroaren 18ra bitartean (2016/0969– 2016/1127) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.



Usurbilgo Udala

2.- 2016/1056 DEKRETUAREN BERRI EMATEA.

Batzarkideei, 2016/1056 dekretuaren berri eman zaie eta hauek jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2016/1090 DEKRETUAREN BERRI EMATEA.

Batzarkideei, 2016/1090 dekretuaren berri eman zaie eta hauek jakinaren gainean geratu dira.

4.- 2016/1020 DEKRETUA BERRESTEA.

Batzarkideek, 2016/1020 dekretua gehiengoz berretsi dute.

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

5.- A-107 IARTZA EREMUKO 107.11 EXEKUZIO UNITATEAN KOKATUTAKO HERRI BIDEAREN TRAZATU BERRIAREN ALDAKETA GAUZATU AHAL IZATEKO JAREGITEA ETA TRUKAKETA.

Alkateak adierazi du puntu hau Antolakuntza Batzordetik diktaminatuta datorrela.

Bide baten trazatu aldaketa egiteko prozedurari hasiera eman zaio eta, bertan, afektatu batzuen eskariz proposatzen dena da domeinu publikoko bide bat patrimoniala izatera pasatzea. Batzordean bertan aipatu zuten bezala, bide horren trazatuak eragiten dioten jabeen artean badagoela halako hitzarmen bat edo adostasun bat esan du eta honako hau trazatu aldaketa horren eta ondorenean etorriko diren aktuzioen lehenengo urratsa dela.

Jarraian, irizpenak jasotzen dituen puntuak irakurri ditu.

Batzarkideek, Antolakuntza Batzorde Informatzailearen irizpena aztertu dute eta gehiengo osoz onartu dute, honela dio erabakiak:

“Esp. Zenbakia: ID.04/2016-0453

Ikusirik



Usurbilgo Udala

A-107 larza eremuko 107.11 exekuzio unitatean kokatutako herri bidearen jaregite espedientea, exekuzio unitate horretan bidearen trazatuaren aldaketa bideratu ahal izateko bultzatzen dena.

Kontuan harturik

Espedientean jasotako ondasunen datuak, Usurbilgo Udaleko Herri bideen inbentariotik eratorritakoak.

Espedientean Hirigintza buruak 2016ko azaroaren 16an emandako txostena, aurrekariak, gaur egungo egoera, eta ondasunen balioespena jasotzen duena.

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeako 81.1 artikulua eta Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuako 8. artikulua eskatzen duten egokitasuna eta legezotasun betekizuna egiaztatu dira espedientean dagokion txostenak emanda.

Udal Idazkariak 2016ko azaroaren 14an emandako txostenean jaregiteko erabakia Udalbatzak gehiengo osoz hartu behar duela eta jarraitu beharreko prozedura jasotzen da.

Antolakuntza Batzordeak, 2016ko azaroaren 21eko bilkuran, Xabier Arregi, Alaitz Aizpurua, Jone Urdampilleta eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoarekin eta Josune Urkolaren abstentzioarekin, gehiengo onartutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatza Plenoak gehiengo osoz honako erabakia hartu du:

ERABAKIA

LEHENENGOA.- Usurbilgo Udaleko herri bideen inbentarioan jasotako A-107 larza eremuko 107.11 exekuzio unitatean kokatzen den bidearen jaregite proposamena Udalbatzari helaraztea (ikus atxikitako dokumentazio grafikoa), A-107 larza eremuko 107.11 exekuzio unitatean kokatutako herri bidearen trazatu berriaren aldaketa gauzatu ahal izateko.

BIGARRENA.- HARTUKO DEN ERABAKIA JENDAURREAN JARTZEA, GIPIZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEN ARGITARATUZ ETA Udaletxeko iragarki taulan jarritz, hilabeteko epean, interesdunek egoki irizten dituzten alegazioak aurkez ditzaten.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.



Usurbilgo Udala

Beraz, erabakia gehiengo osoz hartua izan da.

6.- UDALAREN AHOTS ETA DATU KOMUNIKAZIORAKO SAREAREN LIZITAZIOA: ESKAINTZA EKONOMIKO ONENA IZENDATZEA.

Puntu hau Zerbitzuak batzorde informatzaileak diktaminatuta datorrenez, Jone Urdanpilletari eman dio hitza.

Jone Urdanpilletak adierazi du alkateak esan bezala Zerbitzuak batzordetik datorrela, baina pertsonal, antolakuntza eta kontratazio teknikariaren txostenarekin.

Lizitazio honetara enpresa bakarra aurkeztu dela, Linea 3000 S.L., eta ondorioz, eskaintzen konparaketarik ezin izan dela egin esan du.

Kontratazio teknikariaren txostenaren baitan, aurkeztu duten proposamena egokia dela gaineratu du.

Irizpideak jasotzen dituen puntuak azaldu ditu.

Batzarkideek, Zerbitzuak Batzorde Informatzailearen irizpena aztertu dute eta gehiengo onartu dute, honela dio erabakiak:

“Espediente zkia: ID.05/2016-0377

LINEA 3000 SL enpresak aurkezturiko B gutunazaleko eskaintza aztertu da. Eskaintza bakarra izanda ez da puntuaketerik egingo, ezin baita beste eskaintzekin konparaketarik egin. Hortaz, aurkezturiko eskaintzak plegu administratibo eta teknikoetako baldintzak betetzen dituen edo ez aztertuko da.

Prezio eskaintzari dagokionean, hileko prezioa 280 eurotan eskaini du (BEZ barne 338,80 euro) ez du administrazio pleguetako kopurua gainditu, hortaz baliozkoa da.

Irekitako negoziaketa fasean ez du eskaintzaren hobekuntzarik aurkeztu.

B gutun-azalean jasoriko gainerako eskaintza (zerbitzuari buruzko txostena) dela eta, ez du plegu teknikoetan ezarritako baldintza eta ezaugarrien aurkako zehaztapenik jaso, hortaz, plegu teknikoetako ukanbeharrak betetzen ditu eta baliozkoa da. Proposatutako hobekuntzei dagokionez, gehienak enpresaren ezaugarriei buruzko aipamenak dira. Zerbitzuari egindako hobekuntzen artean hauek dira aipagarrienak:

- Laneko ordutegiz kanpoko larrialdiak bideratzeko bi mugikor ditu
- Biltegiak elektronikak guztia bikoiztuta dute



Usurbilgo Udala

Hori horrela, aurkezturiko eskaintza bakar honetan LINEA3000 SL enpresaren eskaintzak plegu administratibo eta teknikoetako baldintzak betetzen ditu eta hortaz, baliozkoa da. Horrez gain, zerbitzuari aipaturiko hobekuntzak eskaini dizkio.

Pertsonal, kontratazio eta antolakuntza teknikariaren txostena kontutan hartuta, Zerbitzuak Batzorde Informatzaileak, 2016ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, gehiengoz (aldeko botoak: Jone Urdanpilleta, Jose Mari Iribar eta Fermin Orue-Echevarria; abstentzioa: Mirari Azurmendi) hartutako erabakia kontutan hartuta, Udalbatza Plenoak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA

LEHENA: Eskaintza ekonomiko bakar eta ondorioz onena egin duena LINEA 3000, S.L. dela zehaztea.

BIGARRENA: LINEA 3000, S.L.-ri errekerimendua egitea, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 laneguneko epean oinarri administratiboetako 28. klausulan zehazten diren agiriak aurkeztu ditzan, hau da, Sektore Publikoko Legearen Testu Bategineko 146.1 artikulua zehazten dituen aurretiatzko ukanbeharrak betetzen dituela ziurtatzen dituen agiriak (orijinalak edo kopia konpultsatuak) eta dagokion behin-betiko bermea (840 eurotako) ezarri izana:

a) Enpresaburuaren nortasun juridikoa egiaztatzen duten agiriak:

- Nortasun Agiri Nazionala, lizitatuak bere izenean jardunez gero.
- Beste pertsona edo entitate bat ordezkatuz jardunez gero, Nortasun Agiri Nazionala eta ahalordetze eskritura.

– Lizitatuak pertsona juridiko bat denean, eraketaren edo aldaketaren eskritura, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, aplikagarri zaion merkataritza legediaren arabera inskribatuta egon behar badu. Inskribatuta egon behar ez badu, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, eraketa eskritura edo agiria, estatutuak edo fundazio egintza aurkeztu beharko da. Agiri horietan jardueraren arauak agertu beharko dute, beharrezkoa bada dagokion erregistro ofizialean inskribatuta. Europako Batasuneko estatu kideetako enpresaburu ez espainiarrek lanbide edo merkataritza erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu behar dute, dena delako estatuko legediak baldintza hori eskatzen badu.

– Hainbat enpresaburuk aldi baterako enpresa elkarte bat eratu eta lizitazioa jotzen badute, taldekide bakoitzak jarduteko gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera, eta, halaber, aldi baterako enpresa elkartearen eratzeko konpromisoa ekarriko du, adjudikaziodun suertatuz gero. Era berean, proposamenean adieraziko dute aldi baterako enpresa elkarteko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen, kide guztien kaudimen baldintzak zehaztu eta egiaztatzeko.

b) Erantzukizunpeko berariazko adierazpena, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan aipatzen diren kontratu debekuetako batean ere ez dagoela adierazten duena.

c) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga obligazioak eta gizarte segurantzarekikoak betetzen dituela frogatzen duten agiriak.



Usurbilgo Udala

d) Atzerriko enpresek, kontratuan zuzenean edo zeharka sortzen diren gorabehera guztietarako, mota guztietako auzitegi eta epaitegi espainiarren eskumenei men egingo dietela dioen aitortpena aurkeztu beharko dute, eta, behar izanez gero, lizitatzailari dagokion atzerriko eskumen foruari uko egingo diotela adieraziko dute.

e) 300.000 euroko Erantzunkizun Zibileko aseguruaren baldintzak eta ordainagiria.

f) Bermea ezarri izanaren ziurtagiria.”

HIRUGARRENA: Ebazpen honen berri LINEA 3000, S.L.-ri eta kontuhartzaitzari ematea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartua izan da.


7.- HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO BERRIKUSPENAREN TESTU BATEGINAREN 02 ALDAKETA PUNTUALAREN HASIERAKO ONESPENA.

Alkateak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu. Proposamen berean hiru aldaketa proposatzen direla zehaztu du.

Lehendabizikoa Aginagako erriberako Eizazpi eta Oriagain arteko bideari dagokio. Bertan, proposatzen dena da bide hori sistema orokor izendatzea eta bidearen bi aldeetan 10 metroko babesguneak baita ere. Garbi utzi du horrek ez duela esan nahi derrigorrezkoa denik lursail guztien desjabetzak egitea.

Bigarrena da Zubietan jada egiten ari den hondakin uren ponpalekua sistema orokor izendatzea. Azpiegitura publiko hau Añarbek Udalekin elkarlanean garatzen duen ur-zikinen kolektore nagusiaren proiektu handi horretan kokatuta dagoela esan du. Kasu zehatz honetan, azpiegitura honetan Zubietako ur-zikinak jasotzen dira Aliriko zubi ondoan eta hortik ponpeatzen dira Lasarteko ponpaleku nagusira.

Hirugarrenean, berriz, proposatzen dena da Hirigintza Arauen 53. eta 54. artikuluen egokitzapen bat egitea. Landa guneko eraikinei dagokie eta 2 aldaketa proposatzen dira. Batetik, landa eremuko eraikinen artean gutxieneko distantzia 50 metrotik 25 metrora gutxitzea eta, bestetik, gure arauetan jarrita dago landa eremuko eta urbanizagarriak diren eremuen artean gutxieneko distantzia 1.000 metro direla eta proposatzen dena da baldintza hori kentzea. Gaineratu du baldintza hori kentzeak ez duela esan nahi distantzia bat errespetatu behar ez denik, gertatzen dena da legedi orokorrak ezarritako baldintzak baina zorrotzagoak zituztela Usurbilgo arauak.



Usurbilgo Udala

Batzarkideek, Hirigintza Batzorde Informatzailearen irizpena aztertu dute eta gehiengo osoz onartu dute, honela dio erabakiak:

“Espediente zenbakia: HZ.01/2016-0538

AURREKARIAK

Gipuzkoako Foru Diputatuen Kontseiluak, 2011ko irailaren 6an Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina onartzea erabaki zuen. Hauen testua 2013ko irailaren 10ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 172. zkiko. Aldizkarian.

Orain Usurbilgo udaleko gobernu taldeak Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginaren 2. aldaketa puntuala burutu nahi du. Aldaketa horren helburuak indarrean den araudia honako hiru puntuetan aldatzea/eragitea izanik:

- Aginagako erriberan Eizazpi eta Oriagain tarteko bidea sistema orokor izendatzea.
- SGI-1 ZUBIETAKO HUP sistema orokor berria izendatzea.
- Indarren diren Hirigintza Arauen 53. eta 54. artikuluen egokitzapena.

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, idatzi du arau aldaketa puntualerako dokumentua.

ALDAKETAREN JUSTIFIKAZIOA

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, idatzitako dokumentuan zehazten dira aldaketaren xedea eta justifikazioa. Hitzez hitz honela dio:

A.4.1. AGINAGAKO ERRIBERAN EIZAZPI ETA ORIAGAIN TARTEKO BIDEA SISTEMA OROKOR IZENDATZEA.

Aginagako Erriberan, N-634 errepidearen eta Oria ibaiaren artean bada Txokoalden hasi eta Mapilen amiatzen den eta erriberetako lurretara iristen den bidea, oinezko eta ibilgailuen erabilera ohikoa duena, edozein herritarri irekia. Gaur egun indarrean diren Usurbigo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetan lurzoru hiritarrezinean kokatzen da, bidearen gehiengoa Sistema Orokor bezala sailkatua dagoelarik. Aldiz, bidearen zati bat, Eizazpi eta Oriagain tarteko tramua hain zuzen, ez dago hala izendatuta, bide osoak erabilera publiko bera izan arren.

Hori dela-eta, erriberako bide guztiak izaera bera izan dezan eta baita, haren mantenuari begira, erabilera publikorako baldintza egokiak eman daitezten, beharrezkoa ikusi da Sistema Orokor bezala bide guztia sailkatuta izatea. Horretarako, izendapen hori ez duen bide zatia, aipatu Eizazpi eta Oriagain tartekoa, Sistema Orokor izaerarekin jasotzea ezinbestekoa izanik.



Usurbilgo Udala

Beraz, aldaketa puntual honetan, sistema orokorraren izaerarekin jasoko da bideak gaur egun duen ibilbidea eta baita ere, bidearen bi aldeetako 10 metrotako babesguneak. Baina, horrek ez du esan nahi, beharrezkoa denik sistema orokortzat hartutako lursail guztiaren desjabetza.

A.4.2. SGI-1 ZUBIETAKO HONDAKIN UREN PONPALEKUA (HUP) SISTEMA OROKORRA IZENDATZEA.

Zubietako auzoan, Aliriko zubi ondoan, egun indarrean diren Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Testu Bateinean lurzoru hiritarrezin bezala sailkatutako lurretan *“Zubietako saneamendua, Lasarte Ori a eta Usurbilgo udalerrietako saneamenduko interzeptore nagusiarekin lotzeko proiektua”* egikaritzuz, Hondakin uren ponpaleku berria eraikitzeko egitasmoa aurkeztu du Usurbilgo Udalean Añarbeko Urak S.A.-k.

Zubietako auzoko saneamendua eta Lasarte-Oriako kolektore nagusiaren arteko konexioa egikaritzeko beharrezkoa da hondakin uren ponpalekua ezartzea egungo azpiegitura sareekin lotura ahalbidetuz. Horrekin batera, kolektore berri bat egitea, gaur egun Ipar Konfederazio Hidrografikoak kudeatzen duen Usurbil-Lasarte Oriako kolektore-interzeptorean dagoen sarearekin lotzeko.

Obra hauek ezinbestean, azpiegitura orokorrei dagozkien heinean onura eta interes publikoa dakarte. Ondorioz, Sistema Orokor izendatzen da Hondakin Uren Ponpalekua, gaur egun Zubietan ubidera hondakin uren isuria egiten den lekuaren alboan eta baita, kolektore berriarekin lotura.

SOaren azalera 357,5 m² izango da eta eraikuntzak okupatu dezakeen gehieneko oin-azalera 100 m².

Erabilera azpiegitura publikoena izango da; hondakin uren ponpalekua (HUP) eta interzeptore nagusiarekin lotura. Hala nola, erabilera horretarako beharrezkoak diren instalakuntza erabilera baimentzen da.


Hondakin Uren Ponpalekua barneratzeko beharrezkoa den eraikuntza baimentzen da, beti ere ingurunean txertatuz eta erriberako paisaian nahiz ingurugiroan izan lezakeen eragina murriztuz. Instalakuntzaren bideragarritasuna ahalbidetzeko obra zibilak ere baldintza berak bete beharko ditu.

Egikaritze araubidea publikoa da, lankidetzeta-sistema desjabetzarena ezarriz.

A.4.3. INDARREAN DIREN HIRIGINTZA ARAUEN 53. ETA 54. ARTIKULUEN EGOKITZAPENA.

Egun indarrean den Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioean Testu Bategineko Hirigintza Araudiak lurzoru hiritarrezinean hainbat irizpide eta zehaztapen finkatzen ditu.

Besteren hainbat baldintzen artean, alde batetik 53 eta 54 artikuluetan eraikuntza berriek beste eraikinekiko bete beharreko gutxieneko distantziak



Usurbilgo Udala

ezartzen dira (50 m) eta bestetik, 54.5 artikuluan lurzoru ez urbanizagarrian baserriari atxekitako txabola, negutegi eta aterpeek hiri lurzoru hiritar edo urbanizagarritiko izan behar duten bereizketa gutxienekoa (1.000 m).

Aurrekarietan azaldu bezala, 2016ko abuztuaren 23an Usurbilgo Udaleko Ingurumen Teknikariak txostena eman zuen. Bertan esaten zen, alde batetik, 53. eta 54. Artikuluetan eraikuntza berriek beste eraikinekiko bete beharreko gutxieneko distantzia 50 m-koa izateak *Usurbilgo landa eremuaren sustapenerako interesgarriak izan daitezkeen jardueren garapenerako oztopo dela*, arrazoi zehatzak emanez. Bertan esaten zen, bestetik, 54.5. artikulua ezartzen zuen zenbait eraikinek lurzoru hiritar edo urbanizagarritiko izan beharrezko gutxieneko bereizketa 1.000 m-koa izateak *kaxkotik, Aginagatik edo Zubietatik hurbil dauden hainbat larre eta soroetan gutxieneko azpiegiturak jartzea* oztopatzen duela.

Ondorioz, Ingurumen Teknikariaren txostenean zehazten den moduan, indarrean diren Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren Hirigintza Araudiko 53. eta 54. Artikuluaren egokitzapena justifikatzen da.

DOKUMENTU TEKNIKOA

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Berrikuspenaren Testu Bateginaren 02. Aldaketa Puntualaren hasierako onespenerako dokumentua udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak prestatu du.

LEGE TXOSTENA

Udal Idazkariak aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren honako txostena egin du:

LEGE-TXOSTENA

GAIA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginaren 2. aldaketa puntuala. Hasierako onarpena.

AURREKARIAK

Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolaketako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina 2013ko irailaren 10ean argitaratu zen GAOean. Orain Usurbilgo udaleko gobernu taldeak Araudiaren 37., 53., eta 54. artikulua aldatzeko asmoa dauka.

Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina 2013ko irailaren 10ean argitaratu zen GAOean. Orain Usurbilgo udaleko gobernu taldeak Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginaren 2. aldaketa



Usurbilgo Udala

puntuala burutu nahi du. artikulua aldatzeko asmoa dauka. Aldaketa horren helburuak indarrean den araudia honako hiru puntuetan aldatzea/eragitea izanik:

- Aginagako erriberan Eizazpi eta Oriagain tarteko bidea sistema orokor izendatzea.
- SGI-1 ZUBIETAKO HUP sistema orokor berria izendatzea.
- Indarren diren Hirigintza Arauen 53. eta 54. artikuluen egokitzapena.

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, idatzi du arau aldaketa puntualerako dokumentua.

Gauzak horrela, txosten hau Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2.c) eta 47.2.ii) artikuluetan, apirilaren 18ko 781/86 Errege Dekretu Legegilearen 54.1.b) artikuluan eta irailaren 18ko 1174/1987 Errege Dekretuaren 3.b.) artikuluan xedaturikoa betetzeko ematen da.

LEGEDI APLIKAGARRIA

Aldaketa espediente hau, erkidegoko eta estatutuko legedia beteaz egiten da, zehazki lege hauek aplikatuz:

- 2/2006 Legea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.
- Ekainaren 3ko 105/2008 Dekretua, presako neurriei buruzkoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duena.
- 2008ko azaroaren 28ko Legea, hirigintza ekintzak sortutako gainbalioetan erkidegoaren parte-hartzea aldatzen duena.
- Uztailaren 3ko 123/2012 Dekretua, hirigintza estandarrei buruzkoa.
- Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua.

ALDAKETAREN XEDEA ETA JUSTIFIKAZIOA

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, idatzitako dokumentuan zehazten dira aldaketa xedea eta justifikazioa. Hitzek hitz honela dio:

A.4.1. AGINAGAKO ERRIBERAN EIZAZPI ETA ORIAGAIN TARTEKO BIDEA SISTEMA OROKOR IZENDATZEA.

Aginagako Erriberan, N-634 errepidearen eta Oria ibaiaren artean bada Txokoalden hasi eta Mapilen amiatzen den eta erriberetako lurretara iristen den bidea, oinezko eta ibilgailuen erabilera ohikoa duena, edozein herritarri irekia. Gaur egun indarrean diren Usurbigo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetan lurzoru hiritarrezinean kokatzen da, bidearen gehiengoa Sistema Orokor bezala sailkatua dagoelarik. Aldiz, bidearen zati bat, Eizazpi eta Oriagain tarteko tramua hain zuzen, ez dago hala izendatuta, bide osoak erabilera publiko bera izan arren.



Usurbilgo Udala

Hori dela-eta, erriberako bide guztiak izaera bera izan dezan eta baita, haren mantenuari begira, erabilera publikorako baldintza egokiak eman daitezten, beharrezkoa ikusi da Sistema Orokor bezala bide guztia sailkatuta izatea. Horretarako, izendapen hori ez duen bide zatia, aipatu Eizazpi eta Oriagain tartekoa, Sistema Orokor izaerarekin jasotzea ezinbestekoa izanik.

Beraz, aldaketa puntual honetan, sistema orokorraren izaerarekin jasoko da bideak gaur egun duen ibilbidea eta baita ere, bidearen bi aldeetako 10 metrotako babesguneak. Baina, horrek ez du esan nahi, beharrezkoa denik sistema orokortzat hartutako lursail guztiaren desjabetza.

A.4.2. SGI-1 ZUBIETAKO HONDAKIN UREN PONPALEKUA (HUP) SISTEMA OROKORRA IZENDATZEA.

Zubietako auzoan, Aliriko zubi ondoan, egun indarrean diren Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Testu Bateinean lurzoru hiritarrezin bezala sailkatutako lurretan "Zubietako saneamendua, Lasarte Oriá eta Usurbilgo udalerrietako saneamenduko interzeptore nagusiarekin lotzeko proiektua" egikaritzuz, Hondakin uren ponpaleku berria eraikitzeko egitasmoa aurkeztu du Usurbilgo Udalean Añarbeko Urak S.A.-k.

Zubietako saneamendua eta Lasarte-Oriako kolektore nagusiaren arteko konexioa egikaritzeko beharrezkoa da hondakin uren ponpalekua ezartzea egungo azpiegitura sareekin lotura ahalbidetuz. Horrekin batera, kolektore berri bat egitea, gaur egun Ipar Konfederazio Hidrografikoak kudeatzen duen Usurbil-Lasarte Oriako kolektore-interzeptorean dagoen sarearekin lotzeko.

Obra hauek ezinbestean, azpiegitura orokorrei dagozkien heinean onura eta interes publikoa dakarte. Ondorioz, Sistema Orokor izendatzen da Hondakin Uren Ponpalekua, gaur egun Zubietan ubidera hondakin uren isuria egiten den lekuaren alboan eta baita, kolektore berriarekin lotura.

SOaren azalera 357,5 m² izango da eta eraikuntzak okupatu dezakeen gehieneko oin-azalera 100 m².

Erabilera azpiegitura publikoena izango da; hondakin uren ponpalekua (HUP) eta interzeptore nagusiarekin lotura. Hala nola, erabilera horretarako beharrezkoak diren instalakuntza erabilera baimentzen da.

Hondakin Uren Ponpalekua barneratzeko beharrezkoa den eraikuntza baimentzen da, beti ere ingurunean txertatuz eta erriberako paisaia nahiz ingurugiroan izan lezakeen eragina murriztuz. Instalakuntzaren bideragarritasuna ahalbidetzeko obra zibilak ere baldintza berak bete beharko ditu.

Egikaritze araubidea publikoa da, lankidetzeta-sistema desjabetzarena ezarritik.

A.4.3. INDARREAN DIREN HIRIGINTZA ARAUEN 53. ETA 54. ARTIKULUEN EGOKITZAPENA.

Egun indarrean den Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioean Testu Bategineko Hirigintza Araudiak lurzoru hiritarrezinean hainbat irizpide eta zehaztapen finkatzen ditu.

Besteren hainbat baldintzen artean, alde batetik 53 eta 54 artikuluetan eraikuntza berriek beste eraikinekiko bete beharreko gutxieneko distantziak ezartzen dira (50 m) eta bestetik, 54.5 artikuluan lurzoru ez urbanizagarrian baserri atxekitako txabola, negutegi eta aterpeek hiri lurzoru hiritar edo urbanizagarritiko izan behar duten bereizketa gutxienekoa (1.000 m).

Aurrekarietan azaldu bezala, 2016ko abuztuaren 23an Usurbilgo Udaleko Ingurumen Teknikariak txostena eman zuen. Bertan esaten zen, alde batetik, 53. Eta 54. Artikuluetan eraikuntza berriek beste eraikinekiko bete beharreko gutxieneko distantzia 50 m-koa izateak *Usurbilgo landa eremuaren sustapenerako interesgarriak izan daitezkeen jardueren garapenerako oztipo*



Usurbilgo Udala

dela, arrazoi zehatzak emanez. Bertan esaten zen, bestetik, 54.5. artikulua ezartzen zuen zenbait eraikinek lurzoru hiritar edo urbanizagarritiko izan beharrezko gutxieneko bereizketa 1.000 m-koa izateak *kaxkotik, Aginagatik edo Zubietatik hurbil dauden hainbat larre eta sorotetan gutxieneko azpiegiturak jartzea* oztopatzen duela.

Ondorioz, Ingurumen Teknikariaren txostenean zehazten den moduan, indarrean diren Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren Hirigintza Araudiko 53. eta 54. Artikuluen egokitzapena justifikatzen da.

DOKUMENTAZIOAREN OSAKETA

Plan orokorrak jaso beharreko agiri edo dokumentazioari dagokionez, honako hau adierazten digu 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, Hirigintza eta lurzoruari buruzkoak 62.art.-an:

62. artikulua.– Agiriak.

1.– Plan orokorren edukia agiri hauetan formalizatuko da gutxienez:

- a) Memoria informatiboa eta justifikatiboa. Plangintza-ahalmena baliatzeko beharrezko irizpen-elementuak dakartzan informazio guztia jaso behar du; zehazki, erabakiak hartzeko alternatibak formulatzeko eta hautatzeko prozesuaren azalpena, herritarrek egindako alegazioen, iradokizunen eta erreklamazioen azterketa, eta aukeratutako soluzioen justifikazioa.
- b) Ingurumen-kalteari buruzko aurretiazko txostena betetzearen memoria justifikatiboa. Memoria horretan, gainera, garapen eramangarriaren ikuspuntutik arazoitu behar da hautatutako antolamendua, eta lurzoruak planean aurreikusitakoa betetzeko duen hartze- gaitasuna ere kontuan izan.
- c) Informazio-planoak.
- d) Egiturazko antolamenduaren planoak.
- e) Antolamendu xehatuaren planoak.
- f) Ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa.

2.– Plan orokorretan hirigintzarako eta eraikuntzarako katalogoak eta ordenantzak ere sartu ahal izango dira.

Dokumentuaren edukia honakoa da:

- A. Memoria.
- B. Hirigintza Arauak
- C. Hirigintza Fitxa.
- D. Planoak.

62. artikuluan, zehazki c), d), e) eta f) ataletan eskatzen diren agiriak, Arau aldaketa honetan ez dira jasotzen, eraginik ez dituztelako. Hau da, egiten diren aldaketak ez dira planoetan jasotzen, eta era berean ez du eraginik ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa egiteko.

Beraz, dokumentazioa egoki osaturik dagoela estimatzen da.

GAIAREN AZTERKETA



Usurbilgo Udala

Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolaketako Arauen Testu Bateginaren xedapen aldaketa formulatzeko egokitasunaren justifikazioari dagokionez, dokumentuan bertan adierazten denarekin bat eginez ondorengo esan behar da.

Aldaketa formulatzeko egokitasunaren justifikazioari dagokionez, dokumentuan bertan adierazten denarekin bat egiten da. Bertan hitzez hitz honela esaten da:

105/2008 Dekretuaren, ekainaren 3koaren, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiako neurriei buruzkoaren 33. Artikuluak finkatzen duenez, egitura-antolamenduaren erabateko berrazterketa suposatzen duten hirigintza-planek dokumentuaren osoko berrikuspena dakarte ezinbestean. Aldiz, aipatu artikuluan hirigintza-planei eragiten dieten beste bi prozedura finkatzen dira; hala nola, berrikuspen partzialak eta aldaketa puntualak.

Hau horrela izanik eta aipatu 33. artikuluan finkatutakoari jarraiki, dokumentu honetan proposatzen den Aldaketa Puntuala justifikatzen da segidan.

“33. artikulua.– Egiturazko hirigintza-antolamenduaren erabateko berrikuspena, berrikuspen partziala eta aldaketa puntuala.

1.– Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean lege ezarritako gainerako arazoak aparte utzi gabe, hirigintza-planek ezarritako antolamenduaren eta, nolana ere, plan nagusien egitura-antolamenduaren erabateko berrazterketa osorik berrikusi behar da. Hori guztia antolamenduaren aldaketak, bakarrik edo aurreko beste aldaketa batzuekin batera, honako hauek dakartzanean gertatzen dela ulertuko da:

- a) Udal-mugartean hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuta dagoen lurzoruaren azalera osoaren % 20ko edo hortik gorako gehikuntza.
- b) Udalerriko biztanleriaren % 20ko edo hortik gorako gehikuntza.
- c) Aurreko hirigintza-antolamenduak emandako udalerriko hirigintza-erakigarritasun osoa % 25etan edo ehuneko handiagoan gehitzeko proposamena.
- d) Lursail-azalera bat lurzoru urbanizagarri sektoretan gisa sailkatzeko proposamena, aurreko hirigintza antolamenduan lurzoru urbanizagarri sektoretan gisa aurreikusitako azalera % 50etan edo ehuneko handiagoan gehitzeko, lurralde-plangintzak kontuan hartzen duenean izan ezik.

2.– Honako baldintza hauek guztiak betetzen direnean izango da bidezkoa berrikuspen partziala: egiturazko hirigintza-antolamenduaren aldaketa erabatekoa izatea, hiru antolamendu-eremu edo gehiago eraginpean hartzea (udal-mugartean gainerakoaren egitura antolamendua aldatu gabe) eta, nolana ere, aurreko paragrafoan ezarritako mugak ez gainditzea.

3.– Era berean, aldaketaren xedea egiturazko antolamenduzehaztapen bat baino gehiago aldatzea denean, zehaztapen horiek aurreko plangintzak aurreikusitako hirigintza-antolamenduko eremuen erdiak baino gehiago eraginpean hartzen dituztenean eta lehen paragrafoan ezarritako mugak gainditzen ez direnean izango da bidezkoa berrikuspen partziala.

4.– Hirigintza-antolamenduaren aldaketaren gainerako kasuak aldaketa puntualari jarraiki egin, bideratu eta onartu ahal izango dira.”



Usurbilgo Udala

Osoko berrikuspina edota Berrikuspen Partziala behartzen duten baldintzak ematen ez direnez, kasu honetan, aipatu 105/2008 Dekretuaren 33.4. artikulua baita, esan liteke aukeratu den Aldaketa Puntualaren prozedura justifikatua gelditzen dela.

Horretaz gain, aldaketa-zehatz honek bi sistema orokorrean eragiten dioenez, Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 53.1.f. artikuluan araututakoaren arabera, hirigintzaren egiturazko antolamendu baten aurrean gaudenez, beharrezkoa da Arau Subsidarioetan jasotzea, hau da, planeamendu orokorrean.

IZAPIDETZA

Plangintza aldatzea eta berrikustea 2/2006 Legearen 102. eta hurrengo artikuluetan jasotzen da. Kasu honetan, dokumentuan bertan adierazten den moduan, **Arau Subsidiarioen egiturazko antolamendua aldatu nahi da, baina ez da erabateko aldaketa egin nahi, aldaketa zehatz bat baizik, eta gainera garapen berriak ez du funtsezko eraginik egiturazko antolamenduan.** Beraz, aldaketa hau, 2/2006 Legearen 103. artikulua 4. atalean jasotakoaren arabera, edozein unetan egin daiteke.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 104. eta 105. artikuluetan, eta Lege hau garatzen duen premiazko neurri buruzko 105/2008 Dekretuko 33. eta 34. artikuluetan zehazten denaren moduan gauzatu daiteke Arauen aldaketa hau. hirigintza-planen edozein aldaketa egiteko, plan-mota berbera erabili beharko dela, eta, gainera, zehaztapen horiek onartzeko jarraitutako prozedura bera erabili beharko dela. Baina, Plan Orokorren aldaketetan salbuespen bat dagoela adierazten da, hain zuzen, **hautazkotzat hartzen du aurrerakinaren tramitazioa.**

2/2006 Legearen 104.art.an hirigintzako planen aldaketarako prozedura zehazten du, eta honela dio:

“...zehaztapenetan edozein aldaketa egiteko, plan mota berbera erabili beharko da, eta gainera, zehaztapen horiek onartzeko jarraitutako prozedura bera erabili beharko da. Arau horretatik kanpo geratuko dira honako hauek: c) plan orokorraren aldaketak-hautazkoa dutenean aurrerakinaren (abantzea) tramitazioa.

Zentzu honetan, legearen 87.art.an: *“aldaketa kasuetan, aukerakoa izango da aurrerakina egitea”*. Beraz, kasu honetan ulertu behar da plan orokorra aldatzeko prozedura jarraitu behar dela, baina aurrerakina izapidetu beharrik gabe.

Aldaketa espedientean herritarrek parte hartzeko programari dagokionez, Lurzoruaren euskal Legeak 108. artikuluan plan orokorrean onarpen prozeduran herritarrek parte hartzeko programa xedatzen du, adieraziz, beharrezkoa dela herritarrek parte-hartzeko programa bat finkatzea. Horrela dio hitzez hitz:

Plan orokorrean herritarrek parte hartzeko programa.

Egiturazko antolamenduaren plangintzako figura oro egiten, aldatzen edo berrikusten hasteko udal-erabakiarekin batera, herritarrek parte



Usurbilgo Udala

hartzeko programa finkatu beharko da. Programa hori udalerrriaren ezaugarrietan oinarrituko da, eta herritarrek eta elkarteek planaren taxuketan behar bezala parte har dezaten bermatzeko beharrezkoak diren helburuak, estrategiak eta mekanismoak jasoko ditu. Mekanismo horien artean honako hauek egongo dira:

- a) *jendaurreko bilkurak. Aurrerakinaren edukia azaltzeko egingo dira, batez ere hiria eraikitzeko erabaki estrategikoak eta erabaki horiei buruz espedientearen tramitazioan aurkeztutako alternatibak azaltzeko.*
- b) *Udal barruko herri-kontsulta. Planean sartutako konturen bati buruz herritarren artean eztabaida larriak daudenean egingo da, toki-araubideari buruzko oinarrizko legerian finkatutako prozedurari jarraituta.*
- c) *Zabalkunderako materiala. Hirigintza-tresnetarako legez eskatutako agiriekin batera prestatu beharko da, agiri horiek jendeak errazago ezagutu eta ulertu ditzan.*

Bestetik, honela dio legearen 90.art.ak:

“1.– Udalari dagokio plan orokorra egitea. Egitea erabakitzen denean, informazioa eskatuko zaie Eusko Jaurlaritzan eta dagokion foru-aldundian babes zibilaren, ingurumenaren, kultura-ondarearen eta naturguneen alorreko eskumenak dituzten organoei, arriskuen berri izateko eta ingurumena, kultura-ondarearen babesa eta naturguneak baldintzatzen dituzten faktoreak zeintzuk diren eta antolamenduak zeintzuk errespetatu behar dituen jakiteko. Informazio hori emateko, bi hilabeteko epea egongo da, eta justifikazio tekniko eta juridikoarekin batera emango da.

Era berean, **ez da beharrezkoa izango, 90. artikulua bere 1. atalean jasotako txostena eskatzea**, hain zuzen, Eusko Jaurlaritzan eta dagokion foru-aldundian babes zibilaren, ingurumenaren, kultura-ondarearen eta naturguneen alorreko eskumenak dituzten organoei, arriskuen berri izateko eta ingurumena, kultura-ondarearen babesa eta naturguneak baldintzatzen dituzten faktoreak zeintzuk diren eta antolamenduak zeintzuk errespetatu behar dituen jakiteko txostena.

Hori bai, alderdi hau hiri-antolamenduko plan orokorrak berrikusteko prozeduran aplikagarria da, eta aldaketa puntualen kasuetan, kontsulta hauek espedientearen planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egitearen baitan dago.

2012ko azaroaren 19ko EHAA, **planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua** argitaratu zen. 5.1. artikulua honako hau ezartzen du:

“1.- Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen I A eranskinaren 9. paragrafoan jasotako planek eta programek ingurumen- ebaluazio estrategikoa jaso beharko dute, ingurumen-organoak hartutako erabaki arrazoitu eta publiko bidez, betiere ingurumenean



Usurbilgo Udala

eragin nabarmenak izan ditzaketela ondorioztatzen bada”.

211/2012 Dekretuaren azken xedapenen arteko lehenean, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen I. Eranskinaren A atala aldatu zen, eta 7. idatz-zatia erantsi. Honako hau dio idatz-zati horrek:

“7.- Ingurumenean ondorio nabarmenak izan ditzaketen aurreko planen aldaketak”.

Ingurumenaren gaineko eragin nabarmenak honako kasu hauetan izan ditzaketela ulertzen da:

“a) Ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzea legezko betebeharra duten egitasmoak bihar-etzi baimentzeko esparrua zehazten dutenean. Plan edo programa batek legezko betebehara hori duten egitasmoak bihar-etzi baimentzeko esparrua zehazten duela joko da honako kasu hauetan: proiektuen kokaleku, ezaugarri, neurri edo funtzionamenduari buruz –besteak beste– irizpideak edo baldintzak ezartzen dituztenean; edo proiektuen ingurumen-eraginaren ebaluazioari buruzko legerian edo Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko legeria orokorrean zehazten diren kategorietako bati dagozkion proiektuetarako baimenak nola emango diren berariaz eta zehaztasunez ezartzen dutenean.

b) Zuzenean edo zeharka, Natura 2000 Sareko eremu bati era nabarmenean eragitea gerta daitekeenean, eta, hori dela-eta, Ondare Naturalari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean horientzat ezarritako araudiaren araberako ebaluazioa behar denean.

c) Ondare naturalari eta biodibertsitateari buruzko oinarritzko legeria edo Euskal Autonomia Erkidegoko natura zaintzeko legeria aplikatuz emandako arau-xedapen orokorrek edo nazioarteko hitzarmenek eragindako ingurumen-babeserako erregimenean bat duten eremuetan eragiten dutenean”.

Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen Dekretu berria aztergai dugun kasu zehatzean aplikatuta, **aldaketa espedienteak eragiten dien artikulua, ez dira jasotzen aipatu ataletan.** Horrela adierazten da erredaktatu den dokumentuan bertan eta teknikari honek ere bat egiten du bertan jasotakoarekin.

Bestetik, honela dio 2/2006 legearen 90.art.k:

*5.- Udalak hasierako onespina emango dio plan orokorrari, eta ondoren jendaurrean jarriko du, udalerriari dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta lurraldean hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaratuz. **Plana hilabetez egongo da jendaurrean,** azken argitalpenetik kontatzen hasita. **Sektoreko eskumenak dituzten herri-administrazioei ere emango zaie hasierako onspenaren berri, ezagutu dezaten eta txostena egin dezaten;***

Aurrekoaren ildotik, Sektoreko eskumenak dituzten herri-administrazioei ere emango zaie hasierako onspenaren berri. Kasu honetan **Nekazaritza eta landa garapena sailari bidali beharko zaio.**



Usurbilgo Udala

6.- Jendaurreko erakustaldiaren emaitzak ikusita, udalak behin-behingo onartuko du plan orokorra, bidezko iritzitako egokitzapenak eginda. Dena den, egokitzapen horiek hasieran aurreikusitako egiturazko antolamenduaren funtsa aldatzen badute, udalak hasierako onespena eman beharko dio berriz planari eta jendaurreko erakustaldia irekiko du berriz, behin-behingo onartu aurretik.”

Bestalde, legearen 91.artikuluak: (plan orokorra behin betiko onartzea)

1.- Plan orokorrak behin betiko onartzeko eskumena udalei dagokie 7.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan, eta foru-aldundiei gainerakoetan; kasu bietan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak txostena egin beharko du aurretiaz.

2.- **Plan orokorra udalak onartuko du behin-behingo eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidaliko dio.** Batzordeak txostena egingo du, eta txostenak dioena loteslea izango da plan orokorra lurralde-antolamenduko tresnei egokitzeari dagokionez eta, aplikagarri den araudiaren arabera eta onartutako udalez gaineko proiektuen arabera, Estatuko, Autonomia Erkidegoko edo lurraldeko administrazioaren eskumeneko diren alderdi sektorial guztiei egokitzeari dagokionez.

Beraz, behin behingo onartu eta gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidaliko zaio, eta gero, bere kasuan, dagozkion aldaketekin, Foru Aldundira bidaliko da espedientea.

4.- Beharrezko aldaketak eginda, udalak plan orokorra behin betiko onartuko du edo, bestela, **foru-organismoari bidaliko dio espedientea**, hark hiru hilabete baino lehen **behin betiko onartzeko**.

Atal honi dagokionez, eta artikulua honetako 1.atala kontutan hartuz, foru-organora bidali behar du udalak espedientea honek behin-betiko onspena eman ahal diezaion.

Bestalde, adierazi behar da, apirilaren 2ko 7/1985 legeak 22.2.c)art.ak xedatutakoaren arabera, **udalbatza plenoari dagokio** plangintza orokorrari buruzko akordioak hartzea: “La aprobación inicial del planeamiento general y la aprobación que ponga fin a la tramitación municipal de los planes y demás instrumentos de ordenación previstos en la legislación urbanística”.

Beraz, hasierako onspena eta behin behinekoa udalari dagokio. Bi kasuetan, **gehiengo absolutuz onartu beharko da aldaketa**, honela baitio apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.art.ak: “Se requiere el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros de las corporaciones para la adopción de acuerdos en las siguientes materias: II) Los acuerdos que correspondan adoptar a la incorporación en la tramitación de los instrumentos de planeamiento general previstos en la legislación urbanística.” Hori egin ondoren, espedientea Foru Aldundira igorri beharko da honek behin betiko onspena eman ahal diezaion.

Bestalde, legearen 85.art.ren arabera, “3.- Hirigintzako planei hasierako onspena emateak berekin ekarriko du edozein eratako onarpenak, baimenak eta lizentziak emateko aukera **etetea** planean xedatutakoaren ondorioz indarreko hirigintza-araubidean aldaketak izan dituzten eremuetarako. Etendura horrek ordezkatu egingo du aurreko paragrafoan zehaztutako neurria, neurri hori aurretik hartuta baldin



Usurbilgo Udala

badago”, “4.– Etendura berez iraungiko da ezarritako gehienezko epea amaitzen denean, edo, izapidetzen ari den planari behin betiko onespena epea amaitu baino lehen ematen bazaio, ematen zaion unean”.

2.atalak berriz, honako hau dio: “2.– Eragingarria izan dadin, aurreko paragrafoan aipatzen den etete-erabakia dagokion lurralde historikoaren aldezkaritza ofizialean eta hedadura gehien duten egunkarietako batean argitaratu behar da”.

Laburbilduz, **izapidetzeari dagokionez**, honako hauek dira **eman beharreko pausu nagusiak**:

- Hasierako onespena udalbatza plenoari dagokio, gehiengo absolutuz
- Plana hilabetez jarriko da jendaurrean, azken argitalpenetik zenbatzen hasita. GAO-n, eta lurraldean hedadura gehien duen egunkarian/egunkarietan argitaratuko da.
- Sektoreko eskumenak dituzten herri-administrazioei ere emango zaie hasierako onespeneren berri. Kasu honetan Nekazaritza eta landa garapena sailari bidali beharko zaio.
- Plenoak, alegazioak ikusita, behin-behingo onartuko du dokumentua gehiengo absolutuz, bere kasuan dagozkion aldaketak egin ondoren. Aldaketek hasieran aurreikusitako egiturazko antolamenduaren funtsa aldatzen badute, udalak hasierako onespena eman beharko dio berriz eta jendaurreko erakustaldia irekiko du berriz, behin-behingo onartu aurretik.
- Ondoren, euskal autonomia erkidegoko lurraldearen antolamendurako batzordeari bidaliko dio espedientea, honek txostena egin dezan.
- Bere kasuan, beharrezko aldaketak eginda, Foru Aldundiari bidaliko dio dokumentua honek behin betikoz onar dezan (udalerrak 7000 biztanle baino gutxiago dituzenez, behin betiko onarpena organo honi dagokio)


Hauxe da sinatzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritziren kalterik gabe.

Usurbilen, 2016ko azaroak 7
Udal idazkariak
Garazi Etxeberria San Miguel

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2016ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Xabier Arregi, Jone Urdanpilleta eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoekin, eta Mirari Azurmendiren abstentzioarekin, onartutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatza Plenoak honako erabakia hartu du gehiengo osoz:

E R A B A K I A

LEHENENGO: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Berrikuspenaren Testu Bateginaren 02 Aldaketa Puntuala hasieraz onartzea.



Usurbilgo Udala

BIGARRENA: Onartutako dokumentazioa jendaurrean jartzea hilabeteko epealdian, iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohizko egunkarietan iragarkia argitaratuz, interesatuek hala baderitzote dagokien alegazioak aurkeztu ditzaten.

HIRUGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen 02 aldaketa honek egistasmoren batean eragingo balu eraikitzeke eta lur zatiketarako baimen emakidak etetea, beti ere hartutako erabaki berriak indarrean dagoen Erregimen Urbanistikoa aldatzen badu.

Haserako onespenerari loturiko etendura gehienez bi urtebeteko epean indarrean egongo da, aipatutako planaren behin betiko onspena lortzen denean indarrak gabe geratuko delarik.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia gehiengo osoz hartua izan da.

8.- TOKI-GARAPENAREN, SUSTAPEN EKONOMIKOAREN ETA ENPLEGUAREN ALORREAN BETERRI BURUNTZA UDAL MAILAKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA.

Alaitz Aizpuruak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu.

Batzordean aztertutako gaia izateaz gain, urte askotako lana jasotzen duela adierazi du. Beterriko sei udaletxeen arteko lankidetzaren hitzarmena da eta bertan lantzen diren programa guztiak jasotzeko proposamena dela azaldu du. Gipuzkoan garapen agentziarik gabeko eskualde bakarra garela esan du. Sei udalerrien arteko lankidetzaren azken urteetako fruituak gero eta handiagoak eta esanguratsuagoak direla gaineratu du.

Bai teknikariek eta baita idazkariek eta kontu-hartzaileek ere beren txostenetan adierazten dute garapen agentzia bat edo dagokion erakunde bat sortzeko beharra badagoela.

Aurreko lau urteetan lankidetzaren hitzarmen edo protokolo bat martxan izan zen, urte urte berritzen zena eta garapen agentziaren ordezkari Andoaingo Udalak izan zuen. Lankidetzaren hori 2015eko maiatzean bukatu zela eta ez zela berriro adierazi du. Orduetik



Usurbilgo Udala

hona, sei udaletxetan dauden hiru alderdi politiko nagusien artean lanketa bat egin da eta ikusi da garapen agentzia sortzeko beharra badagoela. Hitzarmen hori berreskuratu eta indarrean jarri behar zela ikusi da.

Sei udaletxeen artean lan txukuna egin dela adierazi du, politikari, teknikari, idazkari eta kontu-hartzaileen artean. Bere ustez oinarri sendo bat jarri da garapen agentzia horren sorrera ahalbideratzeko. Bestalde, alderdi desberdinen arteko gerturatze ariketa bat suposatu duela dio eta nahi baino mantsago joan bada ere, oinarri sendo bat izatea espero du.

Jarraian, hitzarmenaren puntu nagusiak azaldu ditu.

Gaineratu du memorian proiektu bakoitza ondo jasota agertzen dela eta azpimarratu du dagoeneko hainbat programa martxan daudela eta hauetako batzuk aipatu ditu.

Batzarkideek, Hezkuntza eta Garapena Batzorde Informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio erabakiak:

“Esp. Zenb: HE04/2016-0037


Kontuan hartuz Beterri-Buruntza izenez ezagutzen den eskualdeko udaletxeak (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil), bat datozela gaur egun ez dutela baliabide propio eta egokirik Toki Garapenaren, Sustapen Ekonomikoaren eta Enpleguaren alorrean eskualde mailako proiektuak koordinatzeko eta eraginkortasunez elkarlanean aritzeko, eta, hori dela eta, 2015.05.29 arte azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 6. artikuluan aurreikusitako Protokolo Orokorren arabera aritu direla elkarlanean.

Toki Garapenaren, Sustapen Ekonomikoaren eta Enpleguaren alorrean eskualde mailan gauzatutako lankidetzaren begi-bistako errealitatea da Gipuzkoako herrialde historikoan, formula juridiko desberdinen azpian horretarako sortutako Garapen Agentzia desberdinen bitartez.

Eskualdean dugun jokalekuak harmonia handiagoarekin jokatzeko aukera eskaintzen du Toki Garapenaren, Sustapen ekonomikoaren eta Enpleguaren alorrean, enpresekin, heziketa zentroekin eta eremu sozioekonomikoko beste eragile batzuekin loturik.

Parte hartzen duten Udalen iritziz, eskualdeko koordinazioaren eta lankidetzaren bitartez hobeto aprobetxatuko liriteke udal bakoitzak dituen ahalmen eta baliabideak, gutxitu egingo litzateke administrazioko burokrazia, hobetu egin litzateke giza baliabideak eta bitarteko materialak eta, halaber, ekintza bateratu bat bermatuko litzateke interferentziak eta gatazkak eragotziz.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikuluko 25.atalak ezartzen duenez, udalaren eskumen dira tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena eta tokiko enplegu-planak edo -politikak.



Usurbilgo Udala

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 19.2 artikulua haxe ezartzen du: "Udalerriek beren kasa gauzatu ahal izango dituzte eskumen propioak, edo indarreko legeriak aurreikusitako elkartzeko beste formula egoki batzuk erabilia, halako moldez non eskumen propioen ondoriozko obrak egitea eta zerbitzuen prestazioa edo kudeaketa erraztuko den, betiere eragindako udalerriek zehaztutakoaren arabera."

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak arautzen ditu Herri Administrazioen arteko Hitzarmenak.

Kontuan izanik 2016ko azaroaren 15eko Usurbilgo Udalako idazkari eta kontuhartzailearen txostena

Garapen eta Hezkuntza Batzordeak, 2016ko azaroaren 22an egindako bilkuran, Fermin Orue-Echevarria, Josune Estella eta Alaitz Aizpuruaren aldeko botoekin eta Josune Urkolaren abstentzioarekin, onartutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatza Plenoak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGOA: Onartzea Udal mailako lankidetzaren hitzarmena Toki-Garapenaren, Sustapen Ekonomikoaren eta Enpleguaren alorrean sinatzea Beterri-Buruntza eskualdea osatzen duten udaletxeekin (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil), dokumentuan bertan jasotzen diren baldintzetan eta baita ere erantsirik doan memoria tekniko eta ekonomikoa.

Hitzarmen horren iraupena 4 urtetarako aurriztatu da (2017, 2018, 2019 eta 2020)

Lankidetzaren hitzarmen honen babesean egiten diren jarduerak guztietan, Eskualdearen izendapena Beterri-Buruntza izango da.

BIGARRENA: Aipaturiko lankidetzaren hitzarmena sinatzeko, Xabier Arregi Iparragirre Jauna, Usurbilgo Udaleko Alkatea ahalmentzea

HIRUGARRENA: Akordio honen berri Lasarte-Oria, Usurbil, Urnieta, Hernani eta Astigarragako Udalei ematea, jasota gera dadin.

LAUGARRENA: Akordio honen berri Udaletxeko lantzaile guztiei ematea, jasota gera dadin."

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi



Usurbilgo Udala

Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartua izan da.

9.- TOKI-GARAPENAREN, SUSTAPEN EKONOMIKOAREN ETA ENPLEGUAREN ALORREAN BETERRI BURUNTZA UDAL MAILAKO LANKIDETZA HITZARMENAREN BAITAN BATZORDE KUDEATZAILERAKO BI ORDEZKARI POLITIKO IZENDATZEA.

Alaitz Aizpuruak azalpenak eman ditu.

Batzordetik pasa zela adierazi du eta proposatzen dena da Usurbilgo Udaleko ordezkariak alkatea eta Alaitz Aizpurua izatea.

Josune Urkolak esan du EAJ taldeko norbait ere ordezkari izatea proposatzen dutela.

Alaitz Aizpuruak adierazi du eskualde mailan honetaz hitz egin dela eta alderdi bakoitzak garbi duela bakoitza zein egoeratan dagoen. Negoziaketa orokor horretan beraiei ere ez zaiela bestelako aukerarik eman gaineratu du. Udaletxe honetako errealitateara etorrira, batzordean ardurak EH Bilduk dituela esan du. Beraz, uste dute errealitatearekin eta egoerarekin bat datorrela proposatutakoa.

Batzarkideek, Hezkuntza eta Garapena Batzorde Informatzailearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio erabakiak:

“Esp.zenb: HE04/2016-0037

Kontuan hartuz, Toki-Garapenaren, Sustapen Ekonomikoaren eta Enpleguaren alorrean Beterri-Buruntza eskualdeko udaletxeak (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil) Udal mailako lankidetzak hitzarmena sinatzen dutenean, batzorde kudeatzaile bat eratuko dela, Udal bakoitzeko Udal Batzarrak izendatutako bi ordezkari politikok osatuta,

Garapen eta Hezkuntza Batzordeak, 2016ko azaroaren 22an egindako bilkuran, Fermin Orue-Echevarria, Josune Estella eta Alaitz Aizpuruaren aldeko botoekin eta Josune Urkolaren abstentzioarekin, onartutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatza Plenoak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA

LEHENENGOA: Xabier Arregi Iparragirre eta Alaitz Aizpurua Labaka izendatzea Batzorde kudeatzaileko ordezkari, Toki-Garapenaren, Sustapen



Usurbilgo Udala

Ekonomikoaren eta Enpleguaren alorrean Beterri-Buruntza eskualdeko udaletxeak sinaturiko Udal mailako lankidetzak hitzarmenaren baitan.

BIGARRENA: Akordio honen berri Lasarte-Oria, Usurbil, Urnieta, Hernani eta Astigarragako Udalei ematea, jasota gera dadin.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartua izan da.

10.- MOZIOA: AZAROAREN 25A, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA.

Alkateak adierazi du mozio hau Antolakuntza Batzordean eztabaidatuta datorrela.

Josune Estellak mozioa irakurri du.

Esp.zk.: ID.13/2016-0548

2016ko azaroaren 21ean izandako Antolakuntza Batzordean EH Bildu udal taldeak aurkeztutako **“Azaroaren 25a, Emakumeen Kontrako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna”** mozioa aztertu zen.

Batzarkideek, aho batez (aldeko bozkek: Xabier Arregi, Alaitz Aizpurua, Jone Urdampilleta, Josune Urkola eta Fermin Orue-Echevarria) onartu zuten mozioa eta Udalbatzarrari proposatu zioten bere egitea.

Orain, Udalbatzarrak aho batez onartu du jarraian datorren mozioa:

“Motibazioa

Azaroaren 25ean ozenki aldarrikatu behar dugu emakumeen kontrako indarkeria mota guztien aurka gaudela, eta, hori ez ezik, indarkeria sorrarazten duten eragile guztien aurka ere bagaudela. Bizitza aske, seguru eta burujabeak eraikitzearen alde gaudelako.



Usurbilgo Udala

Indarkeria matxistaren alderdi desberdinak identifikatzen jarraitzeko eguna da, jendartean normalizatuen dauden sotilenetatik hasita, hala nola ukitzeak; ahozko lizunkeriak; publizistek eta mass-mediek emakumeen gorputzari ematen dieten erabilerak; mezu eta adierazpen sexistak; janzkera, jendarte-sareen erabilera edo lagunartea kontrolatzea, eremu publikoa (eskolako patioak, jolastokiak, parkeak) askatasunez okupatzeko zailtasunak; edota emakume eta gizonen arteko berdintasuna zuzenean erasotzen dituzten administrazio-erabakiak. Bigarren estadio batean, sexu-erasoak eta eraso fisikoak egongo lirake, eta, esparrurik bortitzenean, erailketak.

Feminismoak, eta beraz, gure jendarteak, arrakasta handia lortu zuen indarkeria matxista politizatu genuenean, eta, horrenbestez, etxeko gai pribatu bat izatetik jendartearen eta politikaren arlora zabaldu genuenean. Hain zuzen ere, agi geratu denean indarkeria matxistaren jatorria ez dagoela gizon biolento batengan edo burua galdu duen gizon batengan, berdintasunik eta orekarik gabeko jendarte-harreman jakin batzuetan baizik.

Eta horren harira norbaitek esan lezake egun inoiz baino lege, zerbitzu, salaketa eta politika publiko gehiago dauzkagula eskura indarkeria matxistari aurre egiteko, eta hori egia da. Alabaina, indarkeria hori ez da inondik inora murrizten ari, eta indarrean jarraitzen du gure jendartearen eremu guztietan.

Horregatik esaten dugu desorekak indarrean jarraitzen duen bitartean indarkeria matxista hor egongo dela, botere-harreman desorekatu horiei eustea delako, hain zuzen, indarkeria horren funtsa. Hortaz, emakumea izate hutsagatik indarkeria jasateko aukera txikiena dagoen bitartean, gure herrian ez dugu bakea edo normalizazioa lortuko.

Horregatik guztiagatik esan dezakegu urte luzetako borrokari esker lortutako berdintasun formala ez dela nahikoa une honetan, eta aurrera jarraitu behar dugula, mikro eta makroindarkeria guztiak identifikatuz eta indarkeria sortzen duten eragileak banan-banan agerian utziz. Eta erantzukizuna emakumeen gainean jarri ordez, beren burua babesteko eta ez arriskatzeko eskatzen baitiegu, edozein eraso sexista sorrarazteko edo saihesten laguntzeko gai diren gizonen gainean jarriz.

Berdintasunetik gertuago dagoen beste maskulinitate bat eraiki beharra, jendarte patriarkal hau eraldatu beharra eta subjektibitatea aldatzea aldarrikatu nahi dugulako, emakume eta gizonen buruzko balioespenetan oinarritutako hierarkizazioak ezabatuz.

Indarkeria matxista gainditzeko borrokatu beharko dugulako, maskulinitate tradizionalak ezabatu eta desegin beharko ditugulako, adostasun berriak eraikiz, enpatiatik, sororitatetik, aukeratzeko askatasunetik, segurtasunetik, arduratik, berdintasunetik eta elkarrekikotasunetik.

Horregatik guztiagatik, Udalbatzarrak honako mozioa onartu du aho batez:

1.- Usurbilgo Udal honek tokiko talde feminista eta emakumeekin elkarlanean, prebentzioko udal-/lurralde-plan integrala garatuko du, indarkeria matxistaren



Usurbilgo Udala

adierazpide guztiei aurre egiteko modukoa, horretarako beharrezkoak diren baliabide ekonomiko eta tekniko guztiak aktibatuz.

2.- Usurbilgo Udal honek tokiko talde feminista eta emakumeekin elkarlanean, eraso matxisten kontrako protokoloa indartuko du, horretarako beharrezkoak diren baliabide ekonomiko eta tekniko guztiak aktibatuz.

3.- Usurbilgo Udal honek Foru Aldundiari eta Emakunderi eskatzen die emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeko, berdintasun-zuzendaritzak sendotzeko, epaitegietako genero-unitateak indartzeko eta indarreko legeria berraztertze konpromisoa hartzeko.

4.- Usurbilgo udaletik, borroka feministaren alde hartu dugun konpromisoa berretsi nahi dugu, indarkeriarik gabeko jendarte demokratiko bat eraikitze bide eta tresna nagusia den heinean.

5.- Usurbilgo Udaletik, bat egiten dugu mugimendu feministak azaroaren 25erako deitutako mobilizazioekin, eta jendarte osoari ere dei egiten diogu mobilizazio horretan parte har dezan.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, mozioa aho batez onartua izan da.

11.- MOZIOA: ZER EGIN DEZAKET NIK EUSKARAREN ALDE?

Xuban Zubiriak hartu du hitza eta adierazi du euskarak nahi/behar duen lekua oraindik ez duela lortu eta Udalak bat egiten duela euskararen aldeko normalizazioan dagoen lanketa eta borroka guztiarekin. Bide horretan, hurrengo adierazpen honekin ere bat egiten dutela gaineratu du.

Jarraian, mozioa irakurri du.

Alaitz Aizpuruak hitza hartu du eta gonbidapena luzatu du. Aipatu du aurten dela 50. urteurrena Ez Dok Amairu abiatu zela eta horren harira herritar talde batek antolatuta abenduaren 3an herrian zer ospatu eta zer gozatu izango dela esan du. Beraz, ekimen horretan parte hartzera gonbidatu ditu batzarkideak.

Esp.zk.: ID.13/2016-0550



Usurbilgo Udala

2016ko azaroaren 21ean izandako Antolakuntza Batzordean EH Bildu udal taldeak aurkeztutako **“Zer egin dezaket nik euskararen alde?”** mozioa aztertu zen.

Batzarkideek, aho batez (aldeko bozkak: Xabier Arregi, Alaitz Aizpurua, Jone Urdanpilleta, Josune Urkola eta Fermin Orue-Echevarria) onartu zuten mozioa eta Udalbatzarrari proposatu zioten bere egitea.

Orain, Udalbatzarrak aho batez onartu du jarraian datorren adierazpena:

“Zer egin dezaket nik euskararen alde?”

Euskararen Nazioarteko Eguna, 2016

Adierazpena

Abenduaren hirua pozik bizitzeko eguna dugu euskaldunok. Duela berrogei urte arte gizartean gainbehera zihoan euskara hazkunde nabarian jarri dugu. Batik bat belaunaldi zaharrenen hizkuntza izatetik, belaunaldiarteko hizkuntza eta, batez ere, gazteen hizkuntza izatera pasatu da. Ingurune jakin batzuetara mugatuta egotetik sekula bereak izan ez dituen esparru sozialetan ere nor izatera. Europako hizkuntza zaharrena izatetik, hizkuntza modernoa eta gaur egungo gizartera egokitua izatera.

Euskara bizitzen ari den zabalkundea gizarte osoaren nahi eta ahaleginari esker gertatu da. Norbanako askoren eta kolektibo askoren ekimenari esker. Jende askoren eskuzabaltasunari esker. Gizarte osoak proiektu kolektibo gisa bereganatu izanari esker. Konpromiso publiko eta pribatuari esker. Gizartearen adostasunari esker.

Hizkuntza-elkarbizitza gizarte-elkarbizitzaren osagai egin dugu, gizarte-kohesioaren funtsezko elementu. Hizkuntzen berdintasuna eta norbanakoaren hizkuntza-hautua herritar guztion aukera berdintasunaren oinarrian jarri ditugu.

Euskararen Nazioarteko Eguna badugu, baita ere, indarberritzeko eguna. Izan ere, gaur egun, oraindik, bi hizkuntza ofizialen berdintasun sozialetik urrun gaude. Euskarak eta gaztelaniak, erabilerari dagokionez, legezko aitortza berdina dute, baina gizartean egoera desberdina bizi dute.

Horregatik, urratsak ematen jarraitu nahi dugu. Bi hizkuntza ditugu ofizialak Euskal Autonomia Erkidegoan. Baina helburu izaten jarraitzen du, gizartean oro har, hizkuntzen arteko berdintasun sozialera iristeak. Hizkuntza-aniztasunaz harro gaudelako eta euskararekin munduko hizkuntza aniztasunari egiten diogun ekarpenaz ere harro gaudelako. Hizkuntza-aniztasunak gure gizartea aberasten duelako, euskarak hizkuntza-aniztasuna aberasten duelako eta, beraz, gutako bakoitza aberasten gaituelako. Euskara, Etxeparek esan bezala, plazan nahi dugu, indartsu eta sendo nahi dugu bere lurralde guztietan.



Usurbilgo Udala

Euskara hizkuntza erabilia eta bizia izatea: horra gure helburua. Guztion gogoa eta ahalegina eskatzen dituen helburua; helburu ilusionagarria; denoi dei egiten digun helburua: norbanakoei eta kolektiboei, herri aginteei, alderdi politikoei, langileen sindikatuei, enpresari-elkarteei, kirol, aisialdi nahiz kultur arloko elkarteei, gizartearen arlo desberdinetako erakundeei, eta abarri. Gustuko dugun helburua da, gustura hartzen dugun konpromisoa.

Horregatik, herri aginteok eta askotariko gizarte-eragileok elkar hartuta ospatu nahi izan dugu aurten Euskararen Eguna. Euskara eta hizkuntza-elkarbizitza sendotzeko konpromiso bat hartu nahi izan dugu, nork bere neurrikoa, nork bere ahaldaren arabera. Horretarako, gure buruari galdera bat zuzendu diogu: "Zer egin dezaket nik euskararen alde?".

Adierazpen honen sinatzaileok galdera horri erantzun propioa eman nahi diogu, gure esparruan euskara modu edo neurri batean zein bestean indartzeko erantzun bat.

Era berean, herritar guztiak eta gizarte-eragile guztiak gonbidatu nahi ditugu galdera hori bera egitera eta nork bere neurriko erantzuna hausnartzera, guztion ekarpenak baitira baliagarri eta onuragarri euskararen biziberritzerako eta guztion arteko elkarbizitza sendotzeko.

Ospa dezagun, bada, pozik eta harro Euskararen Nazioarteko Eguna. Eta bizi dezagun aurrera begira euskara, gure artean eta egunerokoan, hizkuntza bizia eginez, "Zer egin dezaket nik euskararen alde?" galderari erantzunez eta galdera bera euskal gizarte osoan zabalduz."

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, adierazpena aho batez onartua izan da.

12.- MOZIOA: LASARTE-ORIAKO UDALAK ATSOBAKARREN ENTRENAMENDU-ZELAIA ETA ATLETISMO-PISTA ERAIKITZEKO EGINDAKO ESKAERARI ERANTZUNA.

Alkateak adierazi du mozio hau ere Antolakuntza batzordean tratatu zela, eta aurrez Hirigintza batzordean ere galdera bati erantzunez honi buruz hitz egin zela gaineratu du.

Mozioan bertan argi eta garbi azaltzen dela dio zer eskatu den eta EH Bilduk horren aurrean duen ikuspegia. Zehaztu du abuztuaren 26an sarrera eman zitzaiola Lasarte-



Usurbilgo Udala

Oriako Udalaren eskaera bati, non eskatzen zen Atsobakar-eko eremuan futbol-zelaia eta atletismoko pista egiteko lursail bat eskaini zezala Usurbilgo Udalak. Ikusita gaur egun eremu horretara iristeko Usurbilgo herrigunetik dauden zailtasunak eta irisgarritasun baldintzak ez direla inondik ere betetzen, Foru Aldundiko Mugikortasun Sailari bilera bat eskatu ziotela adierazi du, esanez eskaera horrek zentzua izatekotan derrigorrezko baldintza iruditzen zitzaiela herrigunetik ingurune horretara oinez eta bizikletaz joateko segurtasun baldintzak bermatzea eta, era berean, gogoraraziz badagoela bere garaian Diputazioak onartutako plan bat bidegorri eta oinez-bide bat egiteko herrigunetik inguru horretara. Halaber, esanez baita ere aukera ezin hobe zela elkarlanaren bidetik kirol azpiegitura bat egiteko eta usurbildarrok behar beharrezkoa dugun azpiegitura bat egiteko, hau da, bidegorri eta oinez-bidea egiteko.

Eskaera horri zoritxarrez ez zitzaiola erantzun positiborik eman adierazi du. Erantzuna izan zen momentu honetan ez dagoela dirurik horrelako azpiegitura bat egiteko. Era berean, etorkizuneko konpromisorik ere ez zutela azaldu gaineratu du.

Jarraian, mozioaren azken hiru puntuak irakurri ditu.

Josune Urkolak adierazi du ez dutela bat egiten mozioarekin. Baldintza bezala bidegorri hori eraikitzea ez zaiela arrazoi nahikoa iruditzen esan du eta, era berean, eraiki nahi diren kirol ekipamenduak usurbildarrentzat onuragarriagoak izan daitezkeela iruditzen zaie.

Alkateak esan du kirol ekipamenduak egitea interesgarria izan daitekeela, hain justu ere hori da 3. puntuan azpimarratzen dena. Gaur egun Usurbilek izan dezakeen futbol zelai baten beharra ez dela hain agerikoa esan du, aldiz, atletismoko pista agian eskualdearentzako interesgarria izan litekeela dio. Beraz, ekipamendu horien interesa ez dutela auzian jartzen esan du. Kontua dela dio orain dela gutxi ere istripu lazgarri bat izan dela Troiako pasabidean, non herriko pertsona bat hil den bidea zeharkatzen ari zela. Beraien ustez hau ez da kapritxo bat, urgentziatzko gai bat da, behin eta berriz esan die Diputazioari arazo hori konpondu egin behar dela, ezin da Usurbildik Lasartera, Zubietara, Urbilera oinez joan nahi duenari etengabeko arriskuan joatera behartu. XXI. mendean hori onartezina dela azpimarratu du, ezin da ekipamendu bat egin eta herritarrak bertara joateko arriskuan jarri behar izatea.

Beraz, jada onartuta dagoen plana martxan jartzea eskatzen dute.

Fermin Orue-Echevarriak adierazi du modu honetan alboko herri batekin egoera txar bat sortzen dela. Bidegorri hori egitea eskatzen dute baina hori ez dagoela Lasarteko Udalaren eskuetan azpimarratu du, hori hirugarren instituzio baten eskuetan dago. Egun batetik bestera ezin daitekeela egin eta, gainera, laster bidegorriaren bigarren fase bat egingo dela zehaztu du, Txikierrainokoa, dena batera ezin dela adierazi du, Usurbileraino noizbait egingo dela. Bestalde, Lasarteko Udalak esan duena egingo balu, hau da, Buruntzaldeko kirol mankomunitatetik aterako balitz, usurbildarrok hor galtzen aterako liritekeela gaineratu du.



Usurbilgo Udala

Alkateak adierazi du bere ustez ere ez dela egoerarik onena. Gaineratu du Lasarteko alkateari zuzenean esan ziola proiektu horrekiko ez zutela jarrera negatiboa, baina iruditzen zitzaizela baldintza minimo batzuk bete behar direla. Bestalde, eskaera honekin Diputaziora joan zirenean ez ziela eskatu berehala egitea esan du, baizik eta Diputazioak ze plan zuen jakin nahi izan zutela eta konpromiso batzuk nahi zituztela. Orain dela eguna dio ez dutela ez planik ikusi ez eta konpromisoen berririk izan.

Hala ere, jakinarazi du mozioaren 3. puntuari jaso duten moduan gaia ez dutela itxiztat eman nahi eta elkarlanaren bidetik gaiari heltzeko eta soluzio bat aurkitzeko garaz daudela.

Alaitz Aizpuruk adierazi du gogoratu behar dela Gipuzkoan hori baino azpiegitura askoz zailagoak aurrera eman direla. Irla batean bihurtzen ari garela salatu du.

Esp.zk.: ID.13/2016-0555

2016ko azaroaren 21ean izandako Antolakuntza Batzordean EH Bildu udal taldeak aurkeztutako **“Lasarte-Oriako Udalak Atsobakarren entrenamendu-zelaia eta atletismo-pista eraikitzeko egindako eskaerari erantzuna”** mozioa aztertu zen.

Batzarkideek, gehiengoz (aldeko bozkak: Xabier Arregi, Alaitz Aizpurua eta Jone Urdanpilleta. Abstentzioa: Josune Urkola eta Fermin Orue-Echevarria) onartu zuten mozioa eta Udalbatzarrari proposatu zioten bere egitea.

Orain, Udalbatzarrak gehiengoz onartu du jarraian datorren mozioa:


“Lasarte-Oriako udalak 2016ko uztailaren 12ko Osoko Batzarraren bilkuran hartutako erabakiaren berri helarazi zion Usurbilgo udalari, 2016ko abuztuaren 26ko sarrera-data duen ziurtagirian.

Bertan eskatzen zaio Usurbilgo Udalari lur-sail bat eskain dezala eta tramitazio urbanistikoak erraztu ditzala Atsobakarren entrenamendu-zelai bat eta atletismo-pistak eraikitzeko.

Zehazki, proposamen hori Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-108 (Atsobakar) eremuan kokatzen da. Eredu horretan Lasarte-Oriako udalak bi partzela ditu bere jabetzan (HEU 108.4 –7.875 m²– eta HEU 108.5 –12.216 m²–) eta Usurbilgo Udalak beste partzela bat (HEU 108.3 – 5.551 m²).



Usurbilgo Udala



Idatziko eskaera horrez gain, Usurbilgo Alkateak harremanak izan ditu Lasarte-Oriako Alkatearekin, eta aukera izan dute proposamenaren xedeaz eta nondik norakoez hitz egiteko.

Usurbilgo Udala, aldi berean, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazten ari da, eta, Plan horri atxikita, Mugikortasun Plan bat ere diseinatzen ari da. Plan horietan jasotzen dira etorkizuneko Usurbili begirako oinarritzko printzipio urbanistikoak, eta horien artean dago, besteak beste, mugikortasun jasangarriaren printzipioa. Printzipio horrek zehaztu du, batetik, oinezkoen eta bizikleten bideei lehentasunezko tratua emango zaiela ibilgailuen hierarkian, eta, bestetik, herriko ekipamendu publikoen artean mugitu ahal izateko, modu seguru eta jasangarriak sortuko direla. Alegia, espazio publikoaren berrantolaketan mugikortasun jasangarria sustatuko dela.

Bestalde, esan behar da Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Arloko Planean eta Donostiako Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialean aurreikusita dagoela Usurbilgo herrigunea eta Atsobakar lotuko dituen bidegorria eraikitzea.

Horiek horrela, Usurbilgo Udala Diputazioko Mugikortasuna eta Lurralde-Antolaketa Departamentuko ordezkariekin bildu da, adierazteko premiazkoa dela bidegorri horren proiektua bultzatzea. Usurbilgo Udalak konpromiso bat eskatu du, egitasmo hori aurrera ateratzeko aurreikuspen bat. Erantzuna izan da Diputazioak ezin duela konpromisorik hartu.

Horrenbestez, Udalbatza plenoak honako testua onartu du gehiengoz:

1. Usurbilgo Udalak ez du eragozpenik ikusten Lasarte-Oriako udalak jabetzan dituen lurretan kirol-ekipamenduari dagokion prozedura urbanistikoa bideratzeko, betiere prozedura horrek eskatzen dituen formak eta arauak betez gero.

2. Usurbilgo Udalaren jabetzako lur-saila ekipamendu horretarako uzteko eskaerari dagokionez, derrigorrezko baldintza iruditzen zaigu bertara joateko oinezkoen eta bizikleten irisgarritasuna bermatzea. Hori horrela ez denez, arduragabekeria handia



Usurbilgo Udala

litzateke gure aldetik kirol-gune bat sustatzea Usurbilgo herrigunetik bertara iristeko modu segurua bakarria ibilgailu motordunen bidezkoa denean. Hortaz, udal honek ezin dio baiezkorik eman lagapen horri.

3. Horrelako kirol-azpiegituren garapenak aukera egokia eskaintzen du, lankidetzaren instituzionala praktikara eramanez, denontzat onuragarriak diren ekipamenduak eraikitzeko, jasagarritasunaren eta oreka urbanistikoaren printzipioei eutsiz. Aukera hori hor dago, eta Usurbilgo Udalak prestasun osoa du oraindik ere horretan inplikatzeko.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Abstentzia: Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, mozia gehiengoan onartua izan da.

13.- MOZIOA: ELIKAGAIEN BANKUAREN ETA KONTSUMORAKO EGOKIAK DIREN BAINA SALMENTARAKO BAZTERTUTA DAUDEN ELIKAGAIAK.

Fermin Orue-Echevarria hartu du hitza eta adierazi du nola pasa den asteburuan urtero egiten den Elikagaien Bankurako elikagaien bilketa egin dela, baina horretaz aparte mozio honen bitartez konpromisoa azaldu nahi da, batez ere, merkataritzan eta ostalaritzan zer gehiago egin daitekeen.

Mozioaren bi puntuak irakurri ditu.

Esp.zk.: ID.13/2016-0564

2016ko azaroaren 21ean izandako Antolakuntza Batzordean PSE-EE udal taldeak aurkeztutako **“Elikagaien Bankuaren eta kontsumorako egokiak diren baina salmentarako baztertuta dauden elikagaiak”** mozia aztertu zen.

Batzarkideek, aho batez (aldeko bozkak: Xabier Arregi, Alaitz Aizpurua, Jone Urdampilleta, Josune Urkola eta Fermin Orue-Echevarria) onartu zuten mozia eta Udalbatzarrari proposatu zioten bere egitea.

Orain, Udalbatzarrak aho batez onartu du jarraian datorren mozia:



Usurbilgo Udala

“Zioen azalpena.

Gipuzkoako Elikagaien Bankuak, gobernuz kanpoko erakunde den heinean, beharra duten familiei elikagaiak ematea du helburu eta, horretarako, bertako ongintza-elkarteak ditu euskarri.

Gobernuz kanpoko erakunde gisa, herritarrei hainbat zerbitzu eskaintzen dizkie. Hortaz, uste dugu gure udalerrriak agente aktibo izan behar duela, urteak direla murgilduta gauden krisiaren ondorioz gaizkien pasatzen ari diren pertsona eta familiekiko elkartasunari dagokionez.

Nahiz eta datu makroekonomiko batzuk egun positiboak izan daitezkeen, egia da ere errealitateak argiro ikusarazten digula datu horiek ez dutela isla bera pertsona askoren lan-egoeran, ezta herritarren familia-ekonomian ere.

Hain zuzen horregatik, tamalez, Gipuzkoako Elikagaien Bankuaren antzeko erakunde eta elkarte ugari, tokiko elkarteekin lankidetzan beharra duten familiei elikagaiak ematea helburu dutenak, beharrezkoak ez ezik, ezinbestekoak dira oraindik ere. Hori dela-eta, Udalaren aldetik herritarrak kontzientziatu behar dira elkartasunaren oinarritzko printzipioaren inguruan.

Era berean, ezinbestekoa da udal-konpromisoa elikagaien kontsumo arduratsuari buruzko heziketa- eta kontzientziazio-kanpainetan bete-betean inplikatzeko.

Gainera, Udalak agente aktiboa izan behar du elkartasunaren sustapenean, bertako merkataritzarekin eta ostalaritzarekin lankidetzan; kontsumorako egokiak izanik, salmentarako baztertzen diren elikagaiak bildu eta aprobetxatzen laguntzeko.

Horrenbestez, Udalbatzak honako mozioa onartu du aho batez:


MOZIOA

.- Udalak konpromisoa hartzen du elikagaien kontsumo arduratsuari buruzko heziketa- eta kontzientziazio-kanpainetan bete-betean inplikatzeko.

.- Udalak konpromisoa hartzen du Elikagaien Bankuarekin elkarlanean aritzeko eta lankidetzara hori gure udalerriko merkataritzara eta ostalaritzara zabaltzeko, kontsumorako egokiak diren baina salmentarako baztertuta dauden elikagaiak bildu eta aprobetxatzeko helburuarekin.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios, Jose Mari Iribar Zapirain. Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.



Usurbilgo Udala

Beraz, mozioa aho batez onartua izan da.

14.- MOZIOA: ERRAUSTEGIA ERABAKIA U23 EMAITZAK.

Batzarkideek aho batez erabaki dute Erraustegia Erabakia Plataformak aurkeztutako mozioa gai-zerrendan sartzea.

Alkateak adierazi du EH Bilduk bere egiten duela Erraustegia Erabakia herri plataformak aurkeztutako mozioa. Mozioan jasotzen dena azaldu du eta azken zatia irakurri egin du.

EH Bildutik eskertzekoa iruditzen zaiela esan du plataforma honek egin duen lana. Batetik, aukera eman dielako herritarrei beraien iritzia argi eta ozen azaltzeko eta, bestetik, herritarren kezka sortzen duen erraustegiaren proiektuari aurre egiteko beste bide bat ireki dutelako.

Adierazi du EH Bilduko gobernu taldeak bete-betean egiten duela bat mozioan esaten denarekin, nahiz jakitun diren gaur egunean udal honek esparru administratibo eta instituzionalean egin dezakeen lanak bere mugak dituela. Egunero ikusten dutela esan du zer nolako indarra eta boterea dagoen erraustegiaren proiektua aurrera eramateko. Askotan arrazoiaren gainetik indarraren arrazoa jartzen dela eta horrek bete-betean eramaten gaituela dio egoera zail eta gaiztoetara. Hala eta guztiz, orain artean bezala ahal dutena egingo dutela esan du proiektu horri aurre egiteko eta herri honetan hondakinen tratamendurako eredu propio jasangarriagoa eraikitzeko.

EAJ-PNV udal taldeko Andoni Atxegak hitza hartu du eta adierazi du oso garbi ikusten dela galdeketa parte hartu dutenek erraustegiaren aurka egin dutela, baina era berean, egiten duten irakurketa da ez dela herri honen kezka, zeren gehiengoak ez baitu parte hartu galdeketa. Beraz, Udala herritar horien ordezkari den heinean ere kontutan izan beharko lituzkeela uste dute. "Herriak esan du" esaten denean, hori oso erlatiboa dela azpimarratu du.

Alkateak esan du beti dagoela abstentzioaren era askotako irakurketa egitea. Horrelako baldintzetan egiten diren galdeketa oso zaila dela dio %50era inguratzea ere. Beste hainbat adibidetan ikusi daitekeen bezala, herri plataforma batek dituen baliabideekin galdeketa bat planteatzen denean, abstentzio horren zergatia da, besteak beste, herritarrengana iritsi ezin bat. Kasu honetan, parte-hartzea %43 izan denean, datu esanguratsu bat badela iruditzen zaiola adierazi du, eta erakusten duela zenbaterainoko kezka eragiten duen erraustegiak herri honetan.

Nondik abiatzen garen gogoratu behar dela esan du, berez antzeko galdeketa udal honek egin nahi zuen baina Madriletik debekua jaso zen. Debeku hori gainera oinarritzen zen besteak beste Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako txosten batean.



Usurbilgo Udala

Galdeketa Udal honek egin izan balu, udal baliabideekin eta udal bermearekin seguraski herritarren parte-hartzea areagotuko zela uste du.

Alaitz Aizpuruak galdetu du ea EAJk egiten duen irakurketa den gainontzeko erdia alde dagoela.

Andoni Atxegak erantzun dio soilik herritar horien kezka ez dela, bestela parte hartuko baitzuket.

Fermin Orue-Echevarriak esan du berak ere pentsamendu bera edo berdintsua zuela. Galdeketaren emaitzak ezagutu zituenean oso harrিতuta geratu zela esan du parte-hartze baxuarekin. Sortzen zaion zalantza da ea hainbestekoa ote den kezka hori.

Alkateak adierazi du galdeketa ez lotesle bat egin eta %43ko parte-hartzea lortzea sekulakoa dela. Hori berak bakarrik ez, herri honetatik kanpo dauden analistek galdeketa honen emaitza aztertu dutenean esan dutela dio “ze parte-hartze handia egon den Usurbilen”.

Alaitz Aizpuruak esan du beste edozein hauteskundeetan ere ikusi besterik ez dagoela zer nolako abstentzio maila egoten den.

Herritar batek publikotik hitza hartu du eta esan du benetan jakin nahi bada parte-hartzea zenbatekoa den, hoberena herriari hitza ematea dela. EAJ eta PSE-EEko zinegotziak seinalatuz esan die beraiek izan direla herriari hitza ukatu dienak, beraz, orain ez daitezela etorri esaten herriak zer nahi duen edo zer ez nahi duen.

Bestalde, aurretik esan den bezala hauteskunde guztietan %30-33a kanpoan geratzen direla, geratzen diren horietatik %43a hartu ezker, erabili duten argudioa zakarrontzira botatzeko modukoa dela adierazi du.

Mozioa gehiengoz onartua izan da, honela dio:

“Urriaren 21, 22 eta 23an Zubietako lurretan eraiki nahi den erraustegiari buruz Usurbil eta Zubietako biztanleen iritzia jakiteko aukera izan genuen, Erraustegia Erabakia herri plataformak antolatutako galdeketaren bidez eta galdera garden eta zuzenari erantzuna eskatuz. Galdera, hauxe: “Erraustegia egitea nahi al duzu?” Aginaga, Santuenea, Zubieta eta Usurbilgo kaskoan antolatutako hautes-mahaian jasotako behin betiko emaitza honako hau izan zen:

USURBIL-ZUBIETA (Orotara)

Errolda: 5.312



Usurbilgo Udala

Parte hartzea: %43,6 (2.317 bozka)

Ez: %97,9 (2.268 bozka)

Bai: %1,7 (39 bozka)

Zuriak: 8

Baliogabeak: 2

ZUBIETA

Errolda: 377

Parte hartzea: %64,7 (244 bozka)

Ez: %99,6 (243 bozka)

Bai: %0,4 (1)

Galdeketan bozka eman zuten usurbildar eta zubietarren %97,9 ezezko borobila eman zion erraustegiari; baiezkoa, berriz, %1,7 izan zen. Ezezko garbia, beraz, erraustegiari eman ziona eta, plataforma honen iritziz, agintariek aintzat hartu beharko luketena.

Ondorioz, eta iragarri genuen bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiari, Donostiako eta Usurbilgo Udalari eta Batzar Nagusietako talde guztiekin eskatu genituen hitzorduak, kezka eta eztabaida maila handia sortu duen erraustegiaren proiektuaren inguruan, Zubieta eta Usurbilgo biztanleen iritzia zein den zuzenean azaltzeko asmoarekin.

Elkarrizketa erronda amaituta, "Erraustegia Erabakia" herri plataformak eskertu egin nahi du Usurbilgo Udalak herriaren hitzarekiko azaldu duen errespetu eta konpromiso jarrera.

Hau guztia azaldu ondoren, Udalbatza Plenoak honako mozioa onartu du gehiengoz:

1. Hemendik aurrera eta dagokion toki eta esparru guztietan, usurbildar eta zubietarrek erraustegiari buruzko galdeketan eman duten iritzia defendatu dezala Usurbilgo Udalak.

2. Halaber, emaitza hauek kontutan hartu eta herriaren nahiaren aurka ezarri nahi den erraustegia eraiki ez dadin, Udal horrek bere esku dagoen guztia egiteko asmoa berretsi dezala."

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elepe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, mozioa gehiengoz onartua izan da.



Usurbilgo Udala

15.- GALDERA-ESKAERAK.

Ez dago galdera edo eskararik.

Alkateak ohartarazi du abenduko plenoa 20an egingo dela.

Alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:24ean eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.